

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## NOGak BPSO nazioarteko akreditazioa jaso du zainketen bikaintasunaren aldeko konpromisoagatik

*Osasun kontseilariak Erizaintzak osasun-antolaketan hartu duen garrantzia "erabakigarria" nabarmendu du*

Astelehena, 2018.eko maiatzak 21

### Nafarroako

Ospitalegunek (NOG) jaso du gaur Iruñean Best Practice Spotlight Organizations (BPSO) deritzon nazioarteko akreditazioa, ebidentzian oinarritutako protokolo berrien eta jardunbide egokien giden ezarpenean islatu den Erizaintzako zainketen bikaintasunaren aldeko konpromisoa aldarrikatzen duena.



Osasun kontseilari Fernando Domínguez, NOGari saria emateko ekitaldiko une batean.

Nafarroako Ospitaleguneko gerente Antonio Merinok, NOGeko Osasun Zainketen zuzendari Maite Soriak eta BPSO proiektua lideratu duten Ana Mateo eta Nerea Elizondo erizainek hartu dituzte diplomak, Carlos III Osasun Institutuko Ebidentzian Oinarritutako Osasun Zainketen Unitatearen arduradun zientifiko Esther Gonzálezen eskutik. Hauxe da Ontarioko Erizainen Elkarte Profesionak (RNAO) sustatutako programa Espainian koordinatzeaz arduratzen den erakundea.

[Joan den otsailean](#) Madrilen Estatuko zenbait zentrori esleitu eta orain NOGak modu pertsonalizatuagoan jaso duen akreditazio hau emateko ekitaldia, Osasunbideko Erizaintza arloko jardunbideetan izandako "eraldaketa" aztertzeke jardunaldi baten barruan egin da.

Osasun kontseilari Fernando Domínguezek hartu du parte jardunaldi honen inaugurazioan, eta bertan, Erizaintzak osasun-erakundeetan hartu duen eginkizun "erabakigarria" nabarmentzeaz gain, "osasun arloko emaitzak, jandun kliniko nahiz pazienteen ongizatea hobetzeko duen inpaktua" azpimarratu du. Horren harira, Erizaintzako lantaldeek zainketen kudeaketan hartu duten profil zientifikoa eta "lidergoa" nabarmendu ditu, eta horien ekarpena "nahiztaezkotzat" jo du behar ez bezalako ospitale barruko egonaldiak saihesteko, pazienteek etxean jasotzen duten arreta hobetzeko, paziente kronikoarentzako arreta hobetzeko eta asistentzia maila batetik besterako igaroaldia errazteko, erabiltzaileen "gogobetetze maila argiro gehituz eta osasun-sistemaren eraginkortasuna hobetuz".

Ehun bat profesionalak parte hartu dute jardunaldian, eta Ana Mateok hitzaldia eskaini du, NOGeko Erizaintza taldeak BPSOren jardunbide egokien gidetara egokitzeke abiatu diren estrategiak aztertzeke. Arratsaldean, Nerea Elizondo erizainak 'BPSO edo zainketaren ebidentziaren indarra' deritzon hitzaldia eskainiko du. Horrez gain, zuzeneko konexioa egitea aurreikusi da RNAOko gerente eta BPSO programako zuzendari Doris Grinspum doktorearekin.

### **Jardunbide egokiei buruzko lau gida**

Zainketen Bikaintasunaren aldeko Konpromisoari eusten dioten Zentroak (CCEC®/BPSO®) era askotako osasunerakundeak dira; hala nola, ospitaleak, egonaldi luzeko zentroak, Lehen Mailako Arreta zentroak edota jardunbide egokien giden ezarpenarekin konprometitu dauden osasun-arretaren arloko beste zentro publiko batzuk. Ekimena Ontarioko Erizainen Elkarte Profesionak (RNAO) bultzatutako Best Practice Spotlight Organizations (BPSO) nazioarteko programari atxikita dago.

2015ean, NOGak programa honekin bat egin zuen, bikaintasun-sare honetarako hautagai izendatu ondoren. Zainketen Zuzendaritzako profesionalak lideratutako talde baten bitartez, hiru zainketa gida hauek ezartzeari ekin zion: ultzerak presio bidez baloratu eta prebenitzea, iktusa etengabeko arretaren bidez baloratzea, eta krisi baskularretako zainketak eta mantentzeko jarduna konplikazioak saihesteko. Gaur egun, pertsona eta familia ardatz duen arretari buruzko gida ezartzen dihardu, Nafarroako Osasun Sistema Publikoa Humanizatzeko Estrategiari atxikita.

Programa hau 2012an abiatu zen Estatu espainiarrean, eta harez geroztik, jardunbide egokien 25 gida ezarri dira edo ezartzeko zorian daude. Eritasun kronikoetako arrisku-faktoreen maneia, zenbait gaixotasun krinikoren balorazioa eta maneia, pazientearen segurtasun arazoak edota zeinu eta sintomen maneia egokia dira, besteak beste, gida horietan aztertu diren gaietako batzuk.

Zainketen Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentroen programan parte hartzen duten erakundeak ohiko zainketak ebidentzian oinarritutako jardunbide baterantz aldatzen laguntzen ari dira, gogoan hartzeko moduko emaitzekin lagundu ere. Egiturak aldatu eta egokitzea, erizaintza-kontsulta berrien ezarpena, erregistroen homogeneousazioa, prestakuntzaren hedapen zabala edota zabalkunde zientifikoaren gaineko inpaktuaz gain, berariaz nabarmendu behar dira pazienteen osasunaren nahiz profesionalen jardun klinikoaren mesedetan lortutako emaitzak. Emaitza horien harira, Osasun Munduko Erakundearen (OME) Europako antolakundeak jardunbide egokitzeke jo du.



NOGeko Zuzendaritza proiektuko bultzatzaileekin batera egiaztapena jasotzen dute